

Funtsezko sozietateak:

1. Hardware fabrikatzaileak

Proiektu honetarako hainbat enpresaren ekarpena behar da. Alde batetik, ukipen-pantaila handiak ekoizten dituzten fabrikatzaileak daude, pupitrean integratutako tablet modukoak egiten dituztenak. Bestetik, arkatz digitalak hornitzen dituzten enpresak behar dira. Horrez gain, egitura metalikoak eta ikastetxeetako altzariak fabrikatzen dituzten enpresak ere ezinbestekoak dira pupitrea bera ekoizteko. Enpresa horien zeregina produktuaren osagai fisiko guztiak hornitzea da: mahaia, pantaila, elektronika, arkatz digitala, karkasa, kableatua eta ukipen-panelean integratutako sistema. Adibide gisa, Wacom aipatu daiteke ukipen-panel eta arkatz digitalen arloan, eta Steelcase ikastetxeetako altzarien fabrikazioan.

2. Hezkuntza-softwarearen hornitzaileak

Kasu honetan, sistema eragilea eta ukipen-interfazea garatzen dituzten enpresen lana funtsezkoa da. Horiez gain, eduki digitalak eskaintzen dituzten plataformak ere behar dira, hala nola eskolako aplikazioak, klasearen kudeaketa, koaderno digitalak eta nabigazio segurua eskaintzen dituztenak. Enpresa horien zeregina da pupitreak ikasgelan benetan erabilgarriak izatea, ikasleek idatzi ahal izateko, elkarreragiteko, ariketak egiteko, edukiak ikusteko eta eskolako sarera konektatzeko. Adibide modura, Google Workspace for Education edo Microsoft Education aipa daitezke.

3. Hezkuntza-instituzioak (eskolak, udalak, hezkuntza-sailak)

Bestalde, eskola publikoek eta pribatuak paper oso garrantzitsua dute, haiek baitira produktu honen bezero nagusiak. Era berean, ekipamenduaren finantzaketa eskaintzen duten administrazioak ere funtsezkoak dira. Haien zeregina da sistema hau benetako ikasgeletan ezartzea erraztea, baliabideak jarritz eta erabilera bultzatuz. Adibide gisa, Hezkuntza Ministerioa edo gure autonomia-erkidegoko Hezkuntza Saila aipa daitezke.

4. Instalazio, mantentze eta berme-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak

Kasu honetan, laguntza teknikoa eskaintzen duten enpresak arduratzen dira pantailak konpontzeaz eta pupitreak ikasgeletan behar bezala muntatzeaz. Horrez gain, saldu osteko zerbitzuak ere eskaintzen dituzte. Haien zeregina da sistema beti martxan egotea eta eguneratuta mantentzea, ikasgeletan arazorik egon ez dadin. Adibide gisa, Sermicro bezalako mantentze teknologikoko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak aipa daitezke.

5. Banaketa eta logistika enpresak

Azkenik, altzarien garraioa kudeatzen duten enpresek eta produktua eskoletara banatzen duten biltegi eta hornitzaile teknologikoek parte hartzen dute. Haien zeregina da pupitreak ikastetxeetara modu seguruan eta eraginkorrean iristea, garaiz eta egoera onean. Horrela, prozesu osoa behar bezala ixtea eta produktua ikasgeletara arazorik gabe heltzea bermatzen da. Adibidez: SEUR edo DHL.